



Hamaika euskal enpresak Cannesko MIPTVn parte hartuko dute, Basque Audiovisualen eskutik

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eta Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak euskal ikus-entzunezkoen sektorea nazioartera zabaltzeko estrategia finkatu nahi dute, Cannesen apirilaren 12tik 16ra egingo den edukien munduko azoka nagusian parte hartuz

Aurten, Basque audiovisual MIPTVn egongo da berriro. Cannesen eginiko Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Nazioarteko Azoka hau munduko garrantzitsuenetako bat. "Palais de Festivals" gunearen 14.13 standera hurbiltzen diren bisitariak aurten Euskadin eginiko ekoizpen nagusiak ezagutzeko aukera izango dute.

Cannesera joango den euskal ordezkariak Basque Audiovisualen babesa izango du eta hamaika enpresa hauek osatua izango da: **3Koma, Baleuko, Canal Euskadi, Expressive Media projects, Idem 4, JSB Multimedia, Mediabask, Pausoka, Retelsat, Silverspace Animation Studios eta Sonora Estudios**. Beren produktuak munduko banatzaile nagusiei erakutsi ahal izango diete, azokak irauten duten lau egunetan, hau da, apirilaren 12tik 16ra.

Kultura Sailaren eta Eikenen ekimen bateratu honek, sektorerako egiten denak, euskal ikus-entzunezkoen presentzia bermatzen du nazioarteko erakusleho nagusian, eta, aldi berean, konpainien merkataritza lana errazten du. Ekimenean parte hartuko dutenen artean, zinema eta telebistako ekoizleak, banatzaileak, telebista kateak eta eduki digitalen hornitzaileak daude, besteak beste.

Aurtengo MIPTVen eduki zehatzari dagokionez, euskal enpresek bertatik bertara ezagutu ahal izango dituzte digitalizazioak sektorean, oro har, eragin dituen eraldaketei buruzko analisiak, izan ere, adituek hortaz hitz egingo dute. Hain zuzen ere, ekoizpen digitala izango da aldi honen protagonista nagusietako bat, berezko gunea izango baitu eta baita leku nabarmena ere, programatutako 150 hitzaldietan.

Lehiatzeko abantailak

Era berean, Basque Audiovisualen bidez Cannesen egongo diren enpresek lehen "Ekoizleen Foroa"-ren ondorioak ezagutuko dituzte; aurten, sormen eta finantza arloetan lankidetzeta lana bultzatzearen beharrari buruz izango da foroa. Horren harira, aurreko aldietan agerian geratu izan den moduan,



topaketa hauen bidez sortuko diren negozio aukerak baliagarriak izango dira parte-hartzaileen lehiakortasuna areagotzeko.

Bestalde, MPITV baino lehen, MIPdoc (dokumentalei buruz) eta MIPformats egingo dira. Azkenekoan, 3Komaren parte-hartzea aipatu behar dugu, izan ere, bere "The Killer Room" egitasmoa aukeratua izan da "aukeraketa berezia" atalerako, eta estudio handietako banatzaile eta ekoizle talde handi baten aurrean aurkeztuko dute.

MIPformats MIPTV hasi baino egun bat lehenago egingo da eta sektoreko exekutibo nagusiak bilduko ditu. Egun osoko "pitching" saioa egingo dute, talentua eta sormena bilatzearen. Aldi honetan, aurkeztutako proposamenen kalitatea dela eta, antolatzaileek, 10 finalistez gainera, 20 egitasmo gehiago sartzeari erabaki dute (horien artean dago "The Killer Room").

Kanpo sustapena

Eikenen helburu estrategikoetako bat da Kanpo Sustapenerako Urte Anitzeko Plana izatea, marka bateratu bakarrean. **Basque Audiovisual Euskal Ikus-entzunezko Sektorearen marka gisa finkatu da nazioartean.** Horren harira, Eikenek enpresei eginiko inkesten arabera, enpresak identifikatu egiten dira marka gabiarekin; hau da, edozein merkatutan erraz ezagutuko dena eta Euskadin eginiko ikus-entzunezkoen ekoizpenen kalitate eta berezitasunaren zeinua izango dena.

Oro har, nazioarteko merkatuaren aldeko erronka egiten dutenei laguntzen dien plataforma gisa ikusten da Basque Audiovisual. Izan ere, Basque Audiovisual ez da marka hutsa, merkataritzako sareko katalogo batek (www.basqueaudiovisual.com) eta enpresei laguntza emateko aholkularien talde batek osatutako proiektua baizik.

MIPTVk nazioarteko bokazio garbia du. Azokak irauten duen bost egunetan askotariko jarduerak eskainiko dira: 150 hitzaldi baino gehiago, mintegiak, *keynote*-ak, koktelak, emanaldiak, prentsaurrekoak eta sari banaketak. Txostengile ezagunen artean, Jonathan Miller aipatu behar da, News Corporation-en Digital Media Group-eko Zuzendari Nagusia.